



A-8 AUTOBIDEKO Durangoko ordainlekua. Oraingoz ez da aldaketarik izango bidesarien prezioan. WIKIJA DEL VALLE / ARAUKE/PPS

A-8ko Bizkaiko bidesarien araua indargabetu du Auzitegi Nagusiak

Erabiltzaileek ordaindutakoarekin beste azpiegitura batzuk finantzatzeko direla salatu du

JAKES GOIKOETXEA - DONOSTIA

A-8 autobidearen Bizkaiko zatian bidesaria ordainduz gero, ordaindutakoaren zati bat errepidea mantentzeko eta hobetzeko erabiltzen dute eta beste bat, berriz, beste errepide batzuk ordaintzeko: esate baterako, Hegoaldeko Saihesbidea. EAEko Auzitegi Nagusiaren esanetan, ezarritako bidesariak A-8 autobidearen mantenu gastuak ordaintzeaz gain, «azpiegitura plan handinahia» finantzatzeko dute: Bizkaia 2003 Irisgarritasun Plan Berezia. Horregatik, EAEko Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi du A-8 autobidearen Bizkaiko zatiko bidesariak arautzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren araua.

Bizkaiko Foru Aldundiak 2002ko abenduaren 12an onar-

tu zuen bidesariak sortzeko eta arautzeko foru-araua. Bertan onartzen da autobidea erabiltzeagatik ordaindu beharreko kanoaren helburua «Bizkaian azpiegitura gaietan gerta daitekeen defizita gutxitzea» izango dela», eta diru horrekin ordainduko direla Bizkaia 2003 Irisgarritasun Plan Berezian aurreikusitako azpiegiturak.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Alderdi Popularrak foru-arauaren kontrako helegitea aurkeztu zuen 2003ko urtarrilaren 10ean. Alderdi Popularrak salatu zuenez, autobidea erabiltzeagatik ordaindu beharreko diruak errepidearen mantentze eta ustiatze kostua gainditzen zuen. Bidesariekin lortutako irabaziekin Hegoaldeko Saihesbidea ordainduko zela esan zuen Alderdi Popularrak.

EAEko Auzitegi Nagusiak aintzat hartu du Alderdi Popularraren helegitea eta argudioa: «A-8 autobideko bidesarien prezioak autofinantzaketa logika guztietatik kanpo daude», esan du. Onartu du Bizkaiko Foru Aldundiak A-8 autobideko bidesariak ezaritzeko eskubidea duela, baina «besteko kontu bat» dela eta «bidesari horien bitartez azpiegituren plan handinahia bat ordain dezakeen».

Sententziak nabarmendu duenez, Foru Aldundiak «gainditu» egin ditu Kontzertu Ekonomikoak foru aldundiei zergak biltzeko ezarritako mugak.

Aldundiaren eta Batzar Nagusien helegitea

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bizkaiko Batzar Nagusiek helegitea aurkeztuko dute Espainiako Auzitegi Gorenean. Foru Aldundia sententzia zehatz-mehatz azterzen ari da, baina lehen irakurkaren ostean nabarmendu du «ez duela eraginik izango autobidearen funtzionamenduan». Ohararazi du bidesariekin ordaindu nahi zituen Hegoaldeko Saihesbidea, Ballonti Ardatza eta Alonsotegiko saihesbidea egingo ez zaila, horrek «kalte larria» eragingo lukeela «A-8 autobidearen funtzionaltasunean».

Helegitea aurkezteko «nahikoa material» badagoela esan du Bizkaiko Foru Aldundiak: «He-

goaldeko Saihesbidea ezin da bereizi A-8tik eta bere etorkizuneko zirkulazio gaitasunetik».

Foru Aldundiak uste du helegitea aurkeztu zuten Alderdi Popularrak batzarkideek ez dutela horretarako zilegitasunik; EAEko Auzitegi Nagusiak, ordea, argudio hori indargabetu egin du sententzian.

Antonio Basagoiti PPko Bizkaiko lehendakariak atzo esan zuenez, bidesarien prezioa erdira jaitsi beharko litzateke prezioa sententziara egokitzeko.

Zuriarrain: «Gipuzkoako egoera ezberdina da»

A-8aren Gipuzkoako zatian ere kobratzen da kanona errepidea erabiltzeagatik, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du uste bertako ordainketa sistema bertan behera geratzeko arriskurik dagoenik. «Gipuzkoako egoera desberdina da», esan zuen Javier Zuriarrain Gipuzkoako Bide Azpiegiturarako diputatuak. «Bizkaian ez dituen kanoa eta merkatzeak aplikatzen ditugu».

Javier Zuriarrain esanetan, Austrian eta Alemanian autobideetako bidesariak erabiltzen dituzte errepide sarea mantentzeko. «Europako Batasuneko lege batek debekatu egiten du, ordea, autobideetako dirua osasuna edo gizarte zerbitzuak ordaintzeko erabiltzea».

ETXEBIZITZA

Alderdi Popularrak ados agertu da EAJk Lurzoruaren Legeari egindako aldaketa berriekin

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

EAJ alderdiak Lurzoruaren lege egitasmoari egindako aldaketa proposamena eta Alderdi Popularrak gaiak duen iritzia «nahikoa bat datozela» adierazi du PPko Etxebizitza Batzordeko lehendakari Javier de Andresek.

EAJk zenbait aldaketa egiteko proposatu du Eusko Jaurlaritzak eta PSE-EEK sinatutako Lurzoruaren Legearen testuan. EAJren arabera, udalek autonomia behar dute babes ofizialeko etxebizitzaren eta etxe tasatuen kopurua erabakitzeko. Eusko Jaurlaritzak baldintza bakarrik jartzen die udalei: lurzoru urbanoaren eta urbanizagarriaren %80 babestutako etxeak egiteko erabili behar dute. EAJk nahi du portzentaje horretatik %20 alokairu sozialeko etxebizitzak izatea eta gainontzeko %60 etxe tasatuak.

De Andresek beharrezkotzat jo zuen EAJko kideekin biltzea, babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan bakarrik jartzeko duten asmoa zehazteko eta argitzea.

EBk gogor kritikatu du EAJren proposamena

EAJko Antonio Arieta-Araunabeña eta EB-Berdeetako Oskar Matute legebiltzarkideek EAEko Lurzoruaren lege egitasmoari buruz eztabaidatu zuten atzo Eusko Legebiltzarrean. Matutek adierazi zuenez, Eusko Jaurlaritzak lortu behar du eraikuntzaren sektoreak herritar guztien aberastasunean eragitea, ez gutxi batzuenen bakarrik: «Alegia, ez gutxi batzuek etxe asko egitea gero beste gutxi batzuei saltzeko».

Arieta-Araunabeñaren iritziz, «etxebizitzaren bat behar duten guztiek eskubidea izan behar dute alokairu sozialeko etxea edukitzeko, baina ez beste etxe babestu mota bat edukitzeko».

PSE-EEko Arabako Idazkari Orokorki Txarli Prietok EAJko barruko desadostasunei egotzi zien «polemika». Josu Jon Imaz EBBko lehendakariaren eta Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariaren aldeko sektoreen arteko desadostasunei. Eusko Jaurlaritzari gobernu moduan jokatzeko eta hitzarmena errespetatzeko eskatu zion Prietok.

Euskal
MAQUINARIA S.L.

Zure lorategirako aukerarik zabalena
gure -ko erakusketan

Errekalde etorbidea, 53

Tel.: 943376292
DONOSTIA

WWW.ALPEX.COM

www.outils-wolf.com